

LEIRE MONTROYA

"Futbolean gero eta neska gehiago gara"

12 URTE BESTERIK EZ DITU ERMUAN BIZI DEN FUTBOLARI GAZTE HONEK. 6 URTEREKin HASI ZEN FUTBOLEAN ETA JADA 2 URTE DARAMATZA EIBARKO NESKEN FUTBOL TALDEAN. AURTENGO DENBORALDIAN 10 GOL SARTU OSTEAN TALDEKO BIGARREN GOLEGILE ONENA DUGU BERA. HORREZ GAIN, PASA DEN ABENDUAN EUSKAL HERRIKO SELEKZIOAREKIN JOKATU ZUEN ESPAINIAKO FUTBOL-7 JOKOA. ORAINDIK OSO GAZTEA BADA ERE, FUTBOLEAN LUZAROAN JARRAITU NAHIKO LUKEELA AITORTU DIGU.

•Oso gazte hasi zinen...

6 urterekin hasi nintzen, eskolan. Betidanik izan dut oso gogoko futbola. Ondoren Eibararrera etorri nintzen 10 urterekin.

•Zure dohai nagusia?

Azken pasea emateko gaitasuna.

•Zein postutan jokatzen duzu?

Erdilari postuan.

•Hala ere golegilea zara...

Nahiz eta garaiera haundia ez izan, jokaldiak burutzen ditut eta horri eskerrak. Bestalde, falta jaurtiketaz ere sartu izan ditut batzuk. Aurrera begira jokatzearen aldekoa naiz.

•Neska ugari da hemen...

Eibar taldeak 3 talde ditu.


Nagusiena, tartekoa eta gurea. Geroz eta neska gehiago ari gara honetan.

•Aurten jada txapelketa irabazia daukazu...

9 taldez osatutako liga jokatutako dugu, gehienak gipuzkoarrak bat izan ezik Gasteizkoa baita. Denboraldia amaitzeko jardunaldi gutxi geratzen diren arren, matematikoki txapeladunak gara. Denboraldi bikaina egin dugu. Neurketa bat berdindu badugu ere, gainontzekoak irabazi egin ditugu.

•Gizonezkoen "izarren liga" jarraitzen duzu?

Bai. Ni Athletic-zalea naizen arren, Torres gaztea da gehien gustatzen zaidana. Hala ere, Zidane da onena.



•Athletic-en nesken taldea hor dago...

Iaz izugarritzko denboraldia burutu zuten eta jende asko harrituta utzi zuten. Aurten pattalago dabilta baina honetan gabiltzan guztiontzat eredugarria da egin dutena.

•Lesio larrikik izan duzu?

Momentuz ez.

•Ettxekoek zer esaten dizute?

Honetan jarraitzeko. Gusto-ari banaiz haiek ere pozik direla. Ikasketak aurrera doazen heinean ikusi beharko da.

•Astean denbora asko kentzen dizu futbolak?

3 aldiz entrenatzen dugu eta asteburuan partidua. Bada zerbait.

•Honetan jarraitu nahiko zenuke...

Oso gustora ari naiz. Taldean ere, giroa oso jatorra da.

•Isaac Gonzalez eta Mikel Fernandez entrenatzaileei buruz zer esan?

Onenak direla.

Astier Ibaibarriaga

FAMILIA, BIKOTE eta BANAKAKO TERAPIA

OREKA

PSIKOLOGIA

CHARREMAN ARAZOAK
— bikotearekin
— familiarekin
— kideekin

JARRERA ARAZOAK

ESKOLA PORROTA

ANTSIETATEA, DEPRESIOA, ELIKADURA ARAZOAK

miriam mujika 676 61 70 55 AURRERA EDIZIOA
ainhoa basurko 615 70 37 25 URTZAIKALE KALEA-1.

TRASPASOA

Eibarko TXIKI-PARKa

traspasoan

(Otaola 13)

EIBAR

653 73 37 59

Euskara eta euskaltegia egin biak zureak

UDAL

EUSKALTEGIA

Gure Etxea z/g (Ongarai)
Tel. 943 17 09 25